



Noel CELIS | AFP

## IKUSMIRA

### TXINAK JAIOTZAK BEHAR DITU

Munduko herrialderik populatuena krisi demografikoa du aurrez aurre. Zahar-  
tzen ari den lan indarrak, desazelerazioan dagoen ekonomiak eta hamarkadeta-  
ko hazkunde demografiko txikienak ertz arriskutsura eraman dute herrialdea.  
2025. urterako biztanleria behera egiten hastea espero da, eta panorama beltz  
horren aurrean, Txinak neurri berriak iragarri ditu familiak seme-alaba gehiago  
izatera bultzatzeko. Agintariek 2016an seme-alaba bakarreko politika zorrotzari  
amaiera eman zioten eta ondoren bikote bakoitzeko hiru seme-alaba izateko au-  
kera eman zuten. Baina, hala ere, jaiotzek behera egiten jarraitu dute azken  
bost urteetan. Jaiotza tasa 1.000 biztanleko 7,52 jaiotzara jaitsi zen iaz,  
1949an erregistroak hasi zirenetik izan den txikiena. Egoera horren aurrean, as-  
te honetan Osasun Ministerioak gobernu zentralari eta tokiko erakundeei ugal-

tze osasunean diru gehiago gastatzeko eta haurrak zaintzeko zerbitzuak hobe-  
tzeko eskatu die. Hartara, tokiko agintariek ugalkortasunari laguntzeko neurri  
aktiboak jarri behar dituzte abian, subsidioen, kenkari fiskalen eta osasun ase-  
guru hobeen bidez, baita familientzako hezkuntzarako, etxebizitzarako eta en-  
plegurako laguntzen bidez ere. Era berean, probintziek bi eta hiru urte bitarteko  
haurrentzat haurtzaindegi kopuru nahikoa dutela ziurtatu behar dute urte  
amaierarako.

Hiri aberatsenek dagoeneko martxan jarri dituzte jaiotza tasa pizteko zenbait  
neurri; etxebizitzetarako maileguak, zerga salbuespenak, hezkuntza laguntzak  
eta baita dirulaguntzak ere. Badirudi aste honetan argitaratutako zuzentarauek  
lurralde osora zabaldu nahi dutela politika hori. Amagoia Mujika Telleria